

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### UDAL ADMINISTRAZIOA

#### **Pilarreko gizarte etxeko ingurumenaren ikuspegitik erarik errespetagarrienean egiteko garbiketa integraleko zerbitzua kontratatzeko lehiaketa**

2016ko irailaren 2an onetsi zen 2016/CONASP0324 kontratazio dosierra, Pilarreko gizarte etxeko ingurumenaren ikuspegitik erarik errespetagarrienean egiteko garbiketa integraleko zerbitzurako.

1. Esleitzen duen toki-erakundea.
  - a) Erakundea: Vitoria-Gasteizko Udala.
  - b) Dosiera izapidetzen ari dena: Udal administrazioa
  - c) Dosier zenbakia: 2016/CONASP0324.
2. Kontratuaren xedea.
  - a) Xedearen deskribapena: Pilarreko gizarte etxeko ingurumenaren ikuspegitik erarik errespetagarrienean egiteko garbiketa integrala.
  - b) Kontratu mota: zerbitzuak.
  - c) CPV kodea: 90911200. Eraikinak garbitzeko zerbitzuak.
  - d) Aldaerak onartzea: ez da egokia.
3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko era.
  - a) Izapideak: ohikoak.
  - b) Prozedura: irekia.
  - c) Arautze harmonizatuari lotutako kontratua: bai.
  - d) Gauzatzeko epea: bi urte
  - e) Luzapena: luzapen bat edo gehiago, gehienez bi urte.
4. Kontratuaren zenbatekoa, edo zenbatera artekoa:
  - a) Aurrekontua, BEZ barne: 342.042,80 euro. Kopuru horretatik BEZari dagozkio: 59.362,80 euro.
5. Alderdi juridiko, ekonomiko, finantzario eta teknikoei buruzko informazioa:
  - a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.
  - b) Behin betiko bermea: kontratuaren aurrekontu osoaren (BEZik gabe) ehuneko 5, baldintzen agirian aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.
  - c) Berme osagarria: ez da eskatzen.
  - d) Ordaintzeko modua: ikus administrazio baldintzen orriak.
  - e) Balioespen-irizpideak: administrazio-baldintzen agirian adierazten direnak, beheranzko hurrenkeran.
  - f) Sailkapena (taldea, azpitaldea eta kategoria): ez da eskatzen.

- g) Kaudimen teknikoak: ikus administrazio baldintzen orriak.
- h) Kaudimen ekonomikoak: ikus administrazio baldintzen orriak.
- i) Kontratua gauzatzeko berariazko baldintzak: ikus administrazio baldintzen orriak.
- j) Langileak subrogatzea: ez da egokia.

#### 6. Agiriak eskuratzea:

a) Lekua: ARCO fotokopia-denda San Antonio kalea, 16; 01005 Gasteiz; telefonoak: 945 232813 eta 945 140678, faxa: 945140678-, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.

#### c) Dosierria aztertzea:

Udal Administrazioaren Saileko Udal Eraikinetako Mantentze Zerbitzuan aztertu ahal izango da dosierria —Oreitiasolo kalea, 5, behea; 01006 Vitoria-Gasteiz; tel.: 945 161469, faxa: 945 161487—, iragarkia EBAOn agertu ondorengo lehen lanegunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu bitartean.

Helbide honetan ere aztertu ahal izango da: <http://www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak>

#### 7. Eskaintzak aurkeztea:

Aurkezteko azken eguna: 2016ko urriaren 13

a) Ordutegia: 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

b) Postaz igortzea: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 80.4. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da. Postaz bidaliz gero, 945 161600 fax zenbakira igorri beharko da horren jakinarazpena.

c) Aurkeztu beharreko agiriak: ikus administrazio baldintzen orria.

Aurkezteko tokia: Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusia —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25-behea, 01008, Gasteiz— aurkeztu beharko dira eskaintzak.

d) Lehiatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 6 hilabete.

#### e) Eskaintzak zabaltzea:

B gutun-azala (administrazio agiriak) jendaurrekoa izango ez den ekitaldian zabalduko da, udaletxean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren egun baliodun egokitzen den lehen asteazkenean, goizeko hamar eta erdietan (10:30).

C gutun-azala (formula bidez kuantifikatu ezin den balio-iritziaren mende dauden esleipen-irizpideak baloratzeko agiri teknikoak) jendaurreko ekitaldian zabalduko dira, udaletxean, B gutun-azalak zabaltzen diren asteazken berean, hamaika eta erdietan (11:30).

A gutun-azala (eskaintza ekonomikoa eta balorazio irizpideetarako agiri teknikoak, prezioa ez direnak, baina formula aplikatuz ebaluatu behar direnak) jendaurreko ekitaldian zabalduko da, udaletxean, kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean ([www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak](http://www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak)) adierazten den egunean eta orduan.

8. Iragarkien gastuak: esleipena jasotzen duenaren kontura joango dira.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 2an

*Udal Eraikinetako Mantentze Zerbitzu Orokorreko burua*  
**BLANCA DÍAZ DE DURANA**